| i) | Ser oída con carácter previo a la adopción de medidas disciplinarias contra ella y ser informada de los hechos que den lugar a tales medidas, debiendo ser motivado el acuerdo que, en su caso, imponga la sanción. | i) | Haien aurkako zehapen-neurririk hartu aurretik entzunak izateko, bai eta neurri horiek hartzeko bidea eman duten egin-tzen berri jasotzeko ere. Zehapenik ezarritz gero, zehapen hori ezartzeko erabakiak arrazoitua izan behar du. |
| 2. | Los estatutos podrán contemplar un régimen de representación o delegación del derecho de voto, así como el voto por correspondencia. | 2. | Estatutuetan, boto-eskubidea ordezkatzeko edo eskuordetzeko araubidea jaso daiteke, eta posta bidezko botoa ere bai. |
| 3. | Los estatutos podrán establecer un sistema de voto ponderado o cualificado. | 3. | Estatutuetan, boto haztatu edo kualifikatuaren erabilera ezar daiteke. |

Artículo 27. Deberes de las personas asociadas

Son deberes de las personas asociadas los siguientes:

- a) Compartir las finalidades de la asociación y colaborar para su consecución.
- b) Pagar las cuotas, derramas y otras aportaciones que, con arreglo a los estatutos, puedan corresponder a cada socio.
- c) Cumplir el resto de las obligaciones que resulten de los estatutos.

27. artikulua. Elkartekideen eginbeharrak

Elkartekideen eginbeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen xedeak bere egitea eta horiek lortzen laguntzea.
- b) Estatutuen arabera elkartekide bakoitzak ordaindu behar dituen kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutueta xedatutakotik elkartekideari dagozkion gainerako betebeharrak betetzea.



- d) Acatar y cumplir los acuerdos válidamente adoptados por los órganos de gobierno de la asociación.

Artículo 28. Procedimiento sancionador

1. Los estatutos determinarán las causas de infracción y las correspondientes sanciones, que sólo podrán fundamentarse en el incumplimiento de los deberes, así como el procedimiento y los órganos competentes para la instrucción y resolución de los expedientes sancionadores que deberán estar integrados por distintas personas.
2. En todo caso, la imposición de sanciones deberá ser siempre motivada e ir precedida de la audiencia a la persona interesada.
3. La sanción de separación provisional o definitiva será siempre recurrible ante la Asamblea General.

CAPÍTULO VIII MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS

Artículo 29. Modificación de estatutos

1. La modificación de estatutos se acordará en asamblea general extraordinaria, convocada expresamente con este fin.
2. Dicha modificación sólo producirá efectos ante terceros de buena fe a partir de su inscripción en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.
3. El resto de las modificaciones surtirán efecto para las personas asociadas desde el mismo momento de su aprobación, con arreglo a los procedimientos estatutarios, sin perjuicio de su obligación de comunicación al citado registro a los solos efectos de publicidad.

CAPÍTULO IX DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

Artículo 30. Disolución

Son causas de disolución de la asociación:

- a) La simple voluntad de las personas asociadas, expresada mediante acuerdo adoptado por la Asamblea General.
- b) El cumplimiento del plazo o condición fijados en los estatutos.
- c) La absorción o fusión con otras asociaciones.
- d) La falta del número mínimo de personas asociadas legalmente establecido, sin perjuicio de

- d) Elkarteko gobernu-organoei balio duen eran hartutako erabakiak onzat hartzea eta betetzea.

28. artikulua. Zehatzeko prozedura

1. Estatutuetan zehaztuko da zein diren arau-hausteak eta horien zehapenak, baina zehapen horiek eginbeharrak ez betetzeagatik bakarrik ezar daitezke; orobat, estatutuetan zehaztuko dira zehapen-espeditenteen instrukzioa egiteko eta espeditenteok ebazteko prozedura eta organo eskudunak, eta organo horietako kideak pertsona desberdinak izango dira.
2. Zehapenak ezarri aurretik, interesdunari entzun behar zaio beti, eta zehapena ezartzeko erabakiak arrazoitua izan behar du.
3. Elkartea behin betiko edo aldi baterako utzarazteko zehapenaren aurka beti aurkez daiteke errekurtoa Batzar Nagusian.

VIII. KAPITULUA ESTATUTUEN ALDAKETA

29. artikulua. Estatutuen aldaketa

1. Estatutuen aldaketa helburu horretarako berariaz antolatuko den batzar nagusi berezian erabakiko da.
2. Aldaketa horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen den unetik aurrera bakarrik izango ditu ondorioak fede oneko hirugarrenei dagokienez.
3. Elkartekideentzat, onesten diren unetik bertatik izango dituzte ondorioak gainerako aldaketek, estatutuetan agertzen diren prozeduren arabera. Hala eta guztiz ere, erregistroari jakinarazi egin beharko zaizkio aldaketa horiek, publikitate-ondoretarako bakarrik.

IX. KAPITULUA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

30. artikulua. Desegitea

Elkartea desegiteko arrazoiak hauek dira:

- a) Elkartekideen borondate hutsa, Batzar Nagusiak hartutako erabakiaren bidez adierazia.
- b) Estatutuetan ezartzen den epea edo baldintza bete izana.
- c) Beste elkarre batek xurgatzea edo beste elkarre batzuekin bat egitea.
- d) Legez ezartzen den gutxieneko elkartekide kopurua ez izatea. Nolanahi ere, gutxieneko kopuru



que los estatutos puedan prever un plazo para completarlo. Dicho plazo nunca podrá exceder de un año, a contar desde que se produjera la última baja.

- e) La resolución judicial firme por la que se acuerda la disolución de la asociación.
- f) La imposibilidad de cumplimiento de los fines sociales.
- g) Cualquier otra causa de disolución prevista en los estatutos.

Artículo 31. Liquidación

1. La disolución abre el proceso de liquidación, pero, hasta que concluya ésta, la asociación conservará su personalidad jurídica.
2. Los estatutos podrán regular el régimen de designación de los liquidadores. En ausencia de previsión estatutaria al efecto, será la Asamblea General la que los designe en el acuerdo de disolución. En defecto de los dos supuestos anteriores, serán liquidadores los miembros del órgano de gobierno.

Artículo 32. Facultades de los liquidadores

Las facultades de los liquidadores son las siguientes:

- a) Elaborar el balance de liquidación y actualizar el inventario de bienes y derechos a dicha fecha.
- b) Velar por la integridad del patrimonio, realizando todos los actos de conservación que sean precisos.
- c) Concluir las operaciones pendientes y efectuar las nuevas que guarden relación mediata o inmediata con la liquidación y que resulten precisas a tal fin.
- d) Satisfacer deudas y cumplir las obligaciones pendientes de la asociación.
- e) Cobrar los créditos y exigir los derechos de que sea titular la asociación.
- f) Realizar los bienes y derechos de la asociación, si se estima conveniente.
- g) Aplicar el patrimonio sobrante de acuerdo con los estatutos y en la forma que acuerde la Asamblea General, sin perjuicio del derecho previsto en el artículo 22 de esta ley.
- h) Solicitar la cancelación de los asientos en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.

hori osatzeko epe bat aurreikus daiteke estatutuetan; epea urtebetekoa izango da, gehienez, azken baja gertatzen denetik kontatzen hasita.

- e) Elkartea desegitea erabakitzen duen ebazpen judizial irmoa.
- f) Elkartearen xedekak betetzeko ezintasuna.
- g) Estatutuetan jasota dagoen desegiteko beste edozein arrazoi.

31. artikulua. Likidazioa

1. Desegiteak likidazio-prozesua abiaraziko du, baina elkartek nortasun juridikoa gordeko du likidazioa amaitu bitartean.
2. Likidatzaileak izendatzeko araubidea estatutuetan bertan arautu daiteke. Baina estatutuetan ez bada horrelakorik egiten, Batzar Nagusiak izendatuko ditu likidatzaileok, desegite-erabakian bertan. Aurreko kasu bietako bat ere gertatzen ez bada, gobernu-organoko kideak izango dira likidatzaileak.

32. artikulua. Likidatzaileen ahalmenak

Likidatzaileen ahalmenak hauek dira:

- a) Likidazio-balantzea prestatzea eta egun horretan elkartek dituen ondasun-eskubideen inbentarioa eguneratzea.
- b) Ondarea osorik mantentzen dela zaintzea, horretarako beharrezkoak diren egintza guztiak eginez.
- c) Amaitu gabe dauden eragiketak amaitzea, eta likidazioarekin lotura zuzena duten eta likidaziorako beharrezkoak diren beste eragiketa guztiak egitea.
- d) Zorrak ordaintzea eta elkartek bete gabe dituen betebeharrak betetzea.
- e) Kredituak kobratzea eta elkartearen titulartasuneko eskubideak exijitzea.
- f) Elkartearen ondasun eta eskubideak diru bihurtzea, hori egiteari egoki irizten bazaio.
- g) Sobera den ondarea estatutuen eta Batzar Nagusiak adosten duen eran aplikatzea. Nolanahi ere, aintzat hartu beharko da lege honetako 22. artikuluan aurreikusitako eskubidea.
- h) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean egindako idazpenak deusezta daitezela eskatzea.



Artículo 33. Insolvencia de la asociación y responsabilidad de los liquidadores

1. En caso de insolvencia de la asociación, el presidente o la presidenta o, en su caso, los liquidadores han de promover inmediatamente el oportuno procedimiento concursal ante el juez competente.
2. Los liquidadores responden por el ejercicio de sus funciones ante la asociación, ante las personas asociadas y ante terceros, en los términos previstos por la presente ley para los miembros del órgano de gobierno.

Artículo 34. Destino del patrimonio sobrante

1. El patrimonio sobrante, constituido por todos los bienes y derechos que lo integran conforme a lo que resulte del balance de liquidación, se aplicará a los fines o entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro previstos en los estatutos y en la forma que acuerde la Asamblea General.
2. En el supuesto de que los estatutos o el acuerdo de disolución no concreten de manera singularizada la entidad receptora del remanente, éste se asignará a asociaciones u otras entidades sin ánimo de lucro que lleven a cabo finalidades semejantes o análogas a las de la asociación disuelta y en su misma localidad, en su mismo territorio histórico o en la Comunidad Autónoma.

**CAPÍTULO X
FUSIÓN Y TRANSFORMACIÓN**

Artículo 35. Fusión de asociaciones

1. Las asociaciones podrán fusionarse, ya sea mediante la constitución de una nueva por dos o más de ellas, ya sea mediante la absorción de una o varias por otra ya existente.
2. Los actos de fusión requieren la celebración de asamblea general extraordinaria expresamente convocada con este fin por parte de las asociaciones interesadas. El quórum de asistencia y régimen de mayorías de dicha asamblea serán los previstos para la disolución de la asociación.
3. En los procesos de fusión no se requiere la fase de liquidación y se produce un traspaso universal de bienes, derechos y obligaciones a la nueva asociación creada o a la asociación absorbente. Los estatutos podrán desarrollar los requisitos y el procedimiento de la fusión.

33. artikulua. Elkartearen kaudimen-gabezia eta likidatzaileen erantzukizuna

1. Elkarateak kaudimenik ez badauka, presidenteak edo, hala badagokio, likidatzaileek konkurtso-prozedura sustatu behar dute, berehala, esku-mena duen epailearen aurrean.
2. Likidatzaileek, beren eginkizunak betetzeko egindako lana dela-eta, elkartekideen eta hirugarrenen aurrean erantzun behar dute, lege honetan gobernu-organoko kideentzat ezartzen diren baldintza beretan.

34. artikulua. Sobera den ondarearen erabilera

1. Sobera den ondarea likidazio-balantzearen ondoren geratzen diren ondasun-eskubide guztiak osatuko dute, eta estatutuetan aurreikusita dauden erabileretarako edo irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuentzat erabiliko da, Batzar Nagusiak erabakiko duen eran.
2. Estatutuetan edo desgite-erabakian ez bada zehatz eta banakatuta adierazten zein erakundek jasoko duen geldikina, elkarate edo irabazi-asmorik gabeko beste erakunde jakin batzuei esleituko zaie hura, hau da, elkartearen xede berberak edo antzekoak dituzten eta xede horiek desegin den elkartearen udalerrri berean, lurralde historiko berean edo Autonomia Erkidegoan betetzen dituztenei.

**X. KAPITULUA
BAT-EGITEA ETA ERALDATZEA**

35. artikulua. Elkarteen bat-egitea

1. Elkarateek beste batzuekin bat egin dezakete, bi eratara: bi elkarate edo gehiagok elkarate berri bat eratuz, edo aurretik baden elkarate batek beste bat edo batzuk xurgatuz.
2. Bat-egitearen inguruko egintzetarako batzar nagusi berezira deitu behar da, soilik xede horretarako, eta deialdia elkarate interesdunek egin behar dute. Batzar horretan izan beharreko quoruma eta gehiengoaren araubidea elkarate desegiten den kasurako aurreikusitako berak izango dira.
3. Bat egiteko prozesuetan ez dago likidazio-fasearen beharrik: elkartearen ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak sortu den elkarate berriari edo elkarate xurgatzaileari eskualdatzen zaizkio. Bat egiteko betekizunak eta prozedura estatutuetan gara daitezke.



4. El acuerdo de fusión será comunicado al Registro General de Asociaciones del País Vasco, que cancelará de oficio los asientos de las asociaciones fusionadas o de la asociación o asociaciones absorbidas.

Artículo 36. Transformación de la asociación

1. Toda asociación podrá transformarse en otra entidad de naturaleza asociativa no sujeta a la presente ley, si cumple los requisitos que la legislación específica de esa entidad haya establecido.
2. El acuerdo de transformación requiere la celebración de asamblea general extraordinaria convocada expresamente con este fin. El quórum de asistencia y régimen de mayorías de dicha asamblea serán los previstos para la disolución de la asociación.
3. La transformación no requiere de liquidación. Los estatutos podrán desarrollar los requisitos y el procedimiento de la transformación.
4. El acuerdo de transformación será comunicado al Registro General de Asociaciones del País Vasco, que cancelará de oficio el asiento de la asociación transformada y trasladará el expediente al registro que resulte competente.
5. Toda entidad de naturaleza asociativa no sujeta a la presente ley podrá transformarse en una asociación inscribible en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, si así lo prevé la legislación específica de esa entidad y cumple tanto los requisitos y procedimientos en ella establecidos como los previstos en la presente ley.

Artículo 37. Derecho de inscripción

El derecho de asociación incluye el derecho a la inscripción en el registro de asociaciones competente, que sólo podrá denegarse cuando no se reúnan los requisitos establecidos en la legislación vigente.

CAPÍTULO XI REGISTRO GENERAL DE ASOCIACIONES DEL PAÍS VASCO

Artículo 38. Naturaleza y características

1. El Registro General de Asociaciones del País Vasco, adscrito al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de justicia, tiene carácter unitario, pudiendo desconcentrarse en oficinas territoriales.
2. El Registro General de Asociaciones del País Vasco tiene carácter gratuito y es público res-

4. Bat egiteko erabakia Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrari jakinaraziko zaio, eta erregistroak bere kabuz deuseztatuko ditu bat egin duten elkarteen idazpenak edo xurgatu den elkartearenak edo elkartearenak.

36. artikulua. Elkartearen eraldaketa

1. Elkarte oro lege honen menpeko ez den elkarte-izaerako erakunde bihur daiteke, erakunde horren berriazko legediak ezartzen dituen betekizunak betez gero.
2. Eraldaketarako erabakia hartzeko, batzar nagusi berezira deitu behar da, soilik xede horretarako. Batzar horretan izan beharreko quoruma eta gehiengoaren araubidea elkartearen desegiten den kasurako aurreikusitako berak izango dira.
3. Eraldaketan ez dago likidazioaren beharrik. Eraldaketarako betekizunak eta prozedura estatutueta gara daitezke.
4. Eraldaketarako erabakia Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrari jakinaraziko zaio; erregistroak bere kabuz deuseztatu du eraldatu den elkartearen idazpena, eta espediente hori eskumena duen erregistroari helaraziko dio.
5. Lege honen menpeko ez den elkarte-izaerako erakunde oro Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatu daitezkeen elkarte bihur daiteke, baldin eta erakunde horren berriazko legedian horrela jasota badago eta legedi horretan zein lege honetan aurreikusitako betekizun eta prozedurak betetzen baditu.

37 artikulua. Inskribatzeko eskubidea

Elkarteko eskubideak berekin dakar eskumena duen elkarte-erregistroan inskribatzeko eskubidea, eta indarrean dagoen legedian ezarritako betekizunak betetzen ez direnean bakarrik uka daiteke.

XI. KAPITULUA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ELKARTEEN ERREGISTRO OROKORRA

38. artikulua. Izaera eta ezaugarriak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorra justizia arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita dago, bakarra da eta lurralde-bulegoetan deskontzentratu daiteke.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorra doakoa eta publikoa da. Publikoa



pecto del contenido de los asientos, de los estatutos de las asociaciones, así como de los documentos depositados que guarden relación directa e inmediata con el contenido de las hojas registrales. Al registro general puede acceder toda persona o entidad pública o privada.

3. La publicidad del registro se hará efectiva bajo la forma de certificado del contenido de los asientos de la hoja registral, o mediante copia o exhibición de dichos asientos, de los estatutos de la asociación o de los documentos citados en el párrafo anterior, o por medios informáticos o telemáticos, todo ello de conformidad con lo previsto en la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

Artículo 39. Inscripciones registrales

1. Por cada asociación se abrirá una hoja registral, junto con un protocolo en el que se depositarán cuantos documentos se hayan generado en relación con dicha entidad.
2. Deberán inscribirse en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, en los términos que se establezcan reglamentariamente, los siguientes actos:
 - a) Constitución de la asociación.
 - b) Modificación de estatutos.
 - c) Reconocimiento de utilidad pública y su revocación.
 - d) Designación del presidente o la presidenta, del secretario o la secretaria, del tesorero o la tesorera y, en su caso, de los miembros del órgano de gobierno colegiado, así como sus variaciones.
 - e) Incorporación o baja en federaciones y confederaciones.
 - f) Acuerdos de disolución, fusión y transformación y, en su caso, el traslado a otro registro.
3. Los asientos de las asociaciones podrán contener también anotaciones relativas a:
 - a) La apertura y cierre de delegaciones u otros establecimientos de la asociación.
 - b) Las resoluciones judiciales referentes a las asociaciones inscritas que afecten a actos susceptibles de inscripción registral.

da idazpenen edukiari eta elkarteen estatutuei dagokienez, bai eta erregistro-orrien edukiarekin lotura zuzena eta hur-hurrekoa duten eta erregistroan gordailutu diren agiriei dagokienez ere, eta edozein pertsona edo erakunde publiko edo pribatuk jo dezake erregistro orokorrera.

3. Erregistroaren publizitaterako, erregistro-orriko idazpenen edukiaren gaineko ziurtagiria eman daiteke; bestela, idazpen horiek, elkarteen estatutuak edo aurreko paragrafoan aipatu diren agiriak erakutsi egin daitezke edo horien kopia eman; orobat, bitarteko informatikoak edo telematikoak ere erabil daitezke. Edozein bide erabiltzen dela ere, datu pertsonalen babesari dagokionez indarrean dagoen legedian aurreikusitakoa bete behar da.

39. artikulua. Erregistroko inskripzioak

1. Elkarrekin bakoitzeko, erregistro-orri bat irekiko da, bai eta protokolo bat ere; protokolo horretan jasoko dira erakunde hori dela-eta sortzen diren agiri guztiak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean, erregelamendu bidez ezartzen den moduan, egintza hauek inskribatu behar dira:
 - a) Elkarrekin eraketa.
 - b) Estatutuen aldaketa.
 - c) Herri-onura aitortzea eta ezeztatzea.
 - d) Presidentearen, idazkariaren, diruzainaren eta, halakorik badago, kide anitzeko gobernu-organoko kideen izendapena, bai eta horietan guztietan izan daitezkeen aldaketak ere.
 - e) Federazioetan eta konfederazioetan sartzea edo baja hartzea.
 - f) Desegitea, bat-egitea edo eraldaketagatik edo beste erregistro batera aldatzeagatik gertatzen den baja.
3. Elkarteen idazpenetan beste ohar hauek ere jaso daitezke:
 - a) Elkarrekin ordezkariak edo bestelako establezimenduak ireki eta ixteari buruzko oharrak.
 - b) Inskribatuta dauden elkarteen gaineko ebazpen judizialei buruzko oharrak, ebazpen horiek erregistroan inskribatu beharreko egintzei eragiten badiete.

- c) Anotaciones provisionales de las solicitudes de constancia registral que se formulen sobre contiendas de orden interno.
4. Los acuerdos relativos a actos objeto de inscripción deberán ser comunicados al registro general en el plazo de un mes desde que fueron adoptados.

Artículo 40. Régimen jurídico de las inscripciones

1. La solicitud de inscripción de la constitución de una asociación irá acompañada del acta de constitución firmada por todas las personas promotoras, de los estatutos firmados por el presidente o la presidenta y el secretario o la secretaria y de la relación nominativa de las personas que integran los órganos de representación y gobierno.
2. Las inscripciones se practicarán en el plazo máximo de tres meses desde la presentación de toda la documentación necesaria en el Registro General de Asociaciones del País Vasco. Transcurrido este plazo sin que se haya notificado resolución expresa, se entenderá estimada la solicitud.
3. Cuando se adviertan defectos formales en la solicitud o en la documentación que la acompaña, o cuando la denominación coincida con otra inscrita o pueda inducir a error o confusión con ella, o cuando la denominación coincida con una marca registrada o notoria, salvo que se solicite por su titular o con su consentimiento, se suspenderá el plazo para proceder a la inscripción y se abrirá otro de 10 días para la subsanación de los defectos advertidos.
4. Cuando la entidad solicitante no se encuentre incluida en el ámbito de aplicación de la presente ley o no tenga naturaleza de asociación, el registro general, previa audiencia de la entidad, denegará su inscripción e indicará al solicitante cuál es el registro u órgano administrativo competente para inscribirla. La denegación será siempre motivada.
5. Si se encontraren indicios racionales de ilicitud penal en la constitución de la asociación, el órgano competente dictará una resolución motivada y dará traslado de toda la documentación al Ministerio Fiscal o al órgano jurisdiccional competente; comunicará esta circunstancia a la entidad interesada y suspenderá el procedimiento administrativo hasta tanto recaiga resolución judicial firme. Se actuará de igual modo si se apreciaren indicios racionales de ilicitud penal en las actividades de una asociación.

- c) Elkarte barruko auziak direla-eta zerbait jasota uzteko egiten diren behin-behineko idazpenei buruzko oharrak.

4. Inskribatu beharreko egintzen gaineko erabakiak erregistro orokorrari jakinarazi behar zaizkio, erabakiok hartu eta hilabeteko epean.

40. artikulua. Inskripzioen araubide juridikoa

1. Elkarte baten eraketa inskribatzeko eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira: eraketa-akta, sustatzaile guztiek sinatuta; estatutuak, presidentek eta idazkariak sinatuta, eta ordezkaritza- eta gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonen izenak.
2. Inskripzioak, gehienez ere, hiru hilabeteko epean egin behar dira, beharrezkoak diren agiri guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean aurkezten direnetik aurrera zenbatuta. Epe hori igaro bada eta ez bada ebazpen adierazirik jakinarazi, eskaera onartu egin dela ulertuko da.
3. Eskabidean edo harekin batera aurkeztutako agirietan akats formalik aurkitzen bada, edo elkartearen izena beste izen inskribatu bat bezalakoa bada edo akats edo nahasmendurik sorraraz badezake, edo izena marka erregistratu edo ezagun bat bezalakoa bada –haren titularrak berak eskatuta edo haren baimenarekin izan ezik–, inskripzioa egiteko epea eten eta 10 eguneko beste bat irekiko da aurkitu diren akatsak zuzentzeko.
4. Eskaera egiten duen erakundea ez badago lege honen aplikazio-eremuan edo ez bada elkarre bat, erregistro orokorrak, erakunde horri entzun ondoren, ezezkoa emango dio inskribatzeari, eta eskatzaileari adieraziko dio zein den erakunde hori inskribatzeko eskumena duen erregistroa edo administrazio-organoa. Ezezkoa arrazoitua izango da beti.
5. Elkartearen eraketan ez-zilegitasun penalaren zantzu arrazionalik aurkitzen bada, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du eta agiri guztiak Ministerio Fiskalari edo jurisdikzio-organo eskudunari helaraziko dizkio; orobat, horren guztiaren berri emango dio erakunde interesdunari, eta eten egingo du administrazio-prozedura harik eta ebazpen judicial irmorik egon arte. Elkartearen jardueretan ez-zilegitasun penalaren zantzu arrazionalik hautemanaz gero ere, berdin jokatuko da.



CAPÍTULO XII RECONOCIMIENTO DEL ASOCIACIONISMO Y DE LA UTILIDAD PÚBLICA

Artículo 41. Valor social y fomento del asociacionismo

1. El País Vasco reconoce y ampara el valor de integración social y la función comunitaria que representan las asociaciones como expresión de la participación ciudadana en los asuntos de interés general o particular y como manifestación de valores cívicos de solidaridad, altruismo, generosidad y pluralismo.
2. Las administraciones públicas del País Vasco promoverán el asociacionismo e impulsarán el desarrollo de las asociaciones que persigan fines de interés general, así como de sus uniones, federaciones y confederaciones, respetando su libertad y autonomía frente a los poderes públicos.

Asimismo, las administraciones públicas promoverán acciones positivas para eliminar los obstáculos que impidan la presencia y participación paritaria de mujeres y hombres en todos los ámbitos y espacios asociativos.
3. Las instituciones públicas desarrollarán políticas, estructuras y medidas de promoción, fomento y soporte de la participación ciudadana en su ámbito territorial.
4. Las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco podrán recibir ayudas económicas y subvenciones para el desarrollo de actividades y proyectos.

Artículo 42. Asociaciones de utilidad pública

Podrán ser reconocidas de utilidad pública las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco que contribuyan, mediante el desarrollo de sus actividades, a la consecución del interés general o del bien común realizando de manera significativa los valores de generosidad, altruismo, solidaridad y pluralismo y cumplan, además, los siguientes requisitos:

- a) Que se trate de entidades que promuevan el interés general o el bien común mediante la efectiva y continuada realización de fines de carácter cívico, educativo, científico, cultural, deportivo, sanitario, de promoción de los derechos humanos, de intervención social, de cooperación al desarrollo, de promoción de la igualdad entre mujeres y hombres, de protección de la infancia, de fomento de la igualdad de oportunidades y de la tolerancia, de defensa del medio ambiente, de fomento de la economía social o de la investigación, de promoción

XII. KAPITULUA ELKARTEGINTZAREN ETA HERRI ONURAREN AITORPENA

41. artikulua. Elkartegintzaren gizarte-balioa eta sustapena

1. Euskal Autonomia Erkidegoak aitortu eta babestu egiten du elkarrekin gizartearen integrazio-rako duten balioa eta gizartearen barruan betetzen duten eginkizuna, elkarrekin bidez herritarrek parte hartzen baitute interes orokor edo partikularreko gaietan, eta hainbat balio zibiko gauzatzen, hala nola elkartasuna, altruismoa, eskuzabaltasuna eta aniztasuna.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek elkartegintza sustatuko dute eta interes orokorreko xedeak dituzten elkarrekin garapena bultzatuko dute, bai eta elkarrekin horien batasunen, federazioen eta konfederazioena ere, betiere herri-botereekiko duten askatasuna eta autonomia errespetatuz.

Era berean, herri-administrazioek ekintza positiboak sustatuko dituzte, hartara emakumei eta gizonei elkarrekin alor eta gunerorotan modu parekidean izatea eta parte hartzea eragozten dieten oztopoak kentzeko.
3. Herri-erakundeek, zeinek bere lurralde-eremuan, herritarren parte-hartzea sustatzeko, bultzatzeko eta babesteko politika, egitura eta neurriak garatuko dituzte.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrekin Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarrekin laguntza ekonomikoak eta diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte jarduerak eta proiektu jakinak gauzatzeko.

42. artikulua. Herri-onurako elkarrekin

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrekin Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarrekin herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarrekin, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte. Horretaz gainera, honako betekizun hauek bete behar dituzte:

- a) Interes orokorra edo guztien ongia sustatu behar dute, eta, horretarako, benetan eta jarraituki bete behar dituzte zenbait xede, hala nola izaera zibikoko eta hezkuntza-, zientzia-, kultura-, kirol- edo osasun-izaerako xedeak edo beste hauek eta antzekoak: giza eskubideak sustatzea, gizartearen esku hartzea, garapenerako lankidetzak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, haurrak babestea, aukeraberdintasuna eta tolerantzia bultzatzea, ingurumena defendatzea, gizarte-ekonomia edo ikerketa bultzatzea, boluntariotza sustatzea, kontsumo



del voluntariado, de defensa de consumidores y usuarios, de promoción y atención de las personas inmigrantes y de quienes se encuentren en riesgo de exclusión por razones físicas, sociales, económicas o culturales, y cualesquiera otros fines de similar naturaleza.

- b) Que su actividad no se dirija de manera principal y habitual a beneficiar a sus asociados y asociadas, sino a terceras personas ajenas a la asociación.
- c) Que dispongan de los medios personales y materiales suficientes y de una organización adecuada para garantizar el cumplimiento de los fines estatutarios.
- d) Que el número de personas asociadas contratadas mediante relación laboral o de servicios por la propia asociación sea escasamente relevante en relación con el conjunto de asociados y asociadas.
- e) Que acrediten un cumplimiento efectivo y habitual de los fines estatutarios al menos durante los tres años anteriores a la presentación de la solicitud.
- f) Que los miembros del órgano de gobierno desempeñen sus cargos gratuitamente y sin percibir retribución alguna. No obstante, podrán recibir una retribución adecuada por la realización de servicios diferentes a las funciones que les corresponden como miembros de dicho órgano.
- g) Que lleven a cabo una ordenada y transparente gestión económica.
- h) Que las actividades efectivamente realizadas sean adecuadas a los fines de interés general perseguidos.

Artículo 43. Derechos de las asociaciones de utilidad pública

Las asociaciones reconocidas de utilidad pública tendrán los siguientes derechos:

- a) Utilizar la mención "Reconocida de utilidad pública por el Gobierno Vasco" en toda clase de documentos.
- b) Disfrutar de los derechos, beneficios y exenciones de carácter económico, administrativo, tributario, fiscal y social que se establezcan por la normativa vigente en cada momento.
- c) Recibir asistencia jurídica gratuita en los términos previstos en su legislación específica.
- d) Ser oídas, en la medida en que agrupen o representen a los ciudadanos afectados, en la elaboración de disposiciones de carácter gene-

mitzaileak eta erabiltzaileak defendatzea, eta etorkinak eta arrazoi fisiko, sozial, ekonomikoa edo kulturalak direla-eta baztertuta geratzeko arriskua duten pertsonak promozionatzea eta artatzea.

- b) Beren jardunean, ez dute batez ere eta eskuarki bakoitzak bere kideen onura bilatu behar, elkartekoak ez diren beste batzuen baizik.
- c) Bitarteko pertsonal eta material nahikoa eta antolamendu egokia izan behar dituzte, estatutuetan ezartzen diren xedeak beteko direla bermatzeko.
- d) Haietako bakoitzak lan- edo zerbitzu-harreman baten bitartez kontratatuta dituen elkartekideen kopuruak ez du handia izan behar elkartekideen kopuru osoa kontuan hartuta.
- e) Frogatu behar dute estatutuetako xedeak benetan eta eskuarki bete dituztela, inskribatzeko eskaera egin aurreko hiru urteetan gutxienez.
- f) Haien gobernu-organotako kideek doan bete behar dute kargua, inolako ordainsaririk jaso gabe. Dena den, ordainsari egokia jaso ahal izango dute gobernu-organoko kide izate hutsagatik dagozkien eginkizunez bestelako zerbitzuak egiteagatik.
- g) Ekonomia-kudeaketa txukuna eta gardena egin behar dute.
- h) Benetan egiten dituzten jarduerak egokiak izan behar dute bilatzen diren interes orokorreko xedeetarako.

43. artikulua. Herri-onurako elkarten eskubideak

Herri-onurakotzat aitortu diren elkarteek eskubide hauek izango dituzte:

- a) Beren agiri guztietan "Eusko Jaurlaritzak herri-onurakotzat aitortua" aipamena erabiltzeko eskubidea.
- b) Une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen eskubide, onura eta salbuespenez –ekonomikoak, administratiboak, zergen arlokoak eta sozialak– gozatzeko eskubidea.
- c) Doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea, berriazko legediak ezartzen dituen baldintzetan.
- d) Entzunak izateko eskubidea, eragindako herritarrek biltzen edo ordezkatzeko dituzten neurrian, bai elkarten xedeekin lotura zuzena duten



ral relacionadas directamente con sus fines, así como en la elaboración de planes y programas de singular trascendencia para ellas, con arreglo al procedimiento establecido al efecto por la administración competente.

Artículo 44. Obligaciones de las asociaciones de utilidad pública

1. Las asociaciones reconocidas de utilidad pública deberán presentar ante el Registro General de Asociaciones del País Vasco las cuentas anuales del ejercicio anterior en el plazo de seis meses siguientes a su finalización, junto con una memoria descriptiva de las actividades realizadas en dicho ejercicio.
2. Dichas cuentas anuales deben expresar la imagen fiel del patrimonio, de los resultados y de la situación financiera, así como el origen, cuantía, destino y aplicación de los ingresos públicos y privados percibidos.
3. Asimismo, deberán facilitar al Protectorado de Asociaciones de Utilidad Pública cuanta información y documentación les requiera en relación con sus actividades y funcionamiento.

Artículo 45. Reconocimiento de utilidad pública

1. El reconocimiento de utilidad pública tiene carácter discrecional en función de la valoración que merezcan los fines y actividades desarrollados por la asociación.
2. El Gobierno Vasco realizará el reconocimiento de utilidad pública mediante decreto acordado en Consejo de Gobierno a propuesta de los departamentos que corresponda en función de la materia y, en todo caso, del departamento competente en materia de justicia, el cual tramitará el procedimiento y dirimirá cuantas cuestiones pudieran surgir en él.
3. El reconocimiento de utilidad pública podrá ser revocado mediante decreto del Gobierno Vasco, previa audiencia de la asociación, cuando no se acredite el mantenimiento de los requisitos que dieron lugar al citado reconocimiento o se produzca un incumplimiento grave y reiterado de las obligaciones que recaen sobre este tipo de asociación.
4. Reglamentariamente se desarrollará el procedimiento para el reconocimiento de utilidad pública y, en su caso, para su revocación. Finalizado el plazo reglamentario sin resolución expresa, se entenderá desestimada la petición.
5. La declaración y la revocación del reconocimiento de utilidad pública se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco.

izaera orokorreko xedapenak prestatzerakoan, bai elkarteentzat garrantzi berezia duten planak eta programak prestatzerakoan, betiere elkarteoi entzuteko administrazio eskudunak ezartzen duen prozeduraren arabera.

44. artikulua. Herri-onurako elkarten betebeharrak

1. Herri-onurakotzat aitortu diren elkarteek aurreko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean, ekitaldi hori amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan; horrekin batera, ekitaldi horretan elkarteek burutu dituzten jarduerak deskribatzen dituen txosten bat ere aurkeztu behar dute.
2. Urteko kontu horiek elkarteek duten ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela eman behar dute, bai eta elkarteek izan dituzten sarrera publikoen eta pribatuen jatorria, zenbatekoa, erabilera eta aplikazioa islatu ere.
3. Herri-onurako elkarteek, orobat, Herri Onurako Elkarten Babesletzak beren jarduerari eta funtzionamenduari buruz eskatzen dizkien informazio eta agiri guztiak eman behar dizkiote babesletzari.

45. artikulua. Herri-onura aitortzea

1. Herri-onura diskrezionaltasunez aitortuko da, elkarteak aurrera eramandako xedeez eta jarduerak jasotzen duten balorazioaren arabera.
2. Eusko Jaurlaritzak egingo du herri-onuraren aitortpena, Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsitako dekretu baten bidez. Dekretu-proposamena gaiaren arabera dagokien sailek eta, betiere, justiziaren arloan eskuduna den sailak egingo dute, eta azken sail horrek izapidetuko ditu bai prozedura eta bai hartan sor daitezkeen auzi guztiak.
3. Herri-onuraren aitortpena ezeztatu egin daiteke, Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez eta elkarteari entzun ondoren. Ezeztatu egingo da baldin eta ez bada egiaztatzen aitortpen hori ahalbidetu zuten betekizunak betetzen jarraitzen dela, edo elkarte mota horrek dituen betebeharretan ez-betetze larri eta errepikatua gertatzen bada.
4. Erregelamendu bidez garatuko da herri-onura aitortzeko prozedura eta, hala badagokio, aitortpen hori ezeztatzeko prozedura. Erregelamendu bidez ezarritako epea amaitzen bada eta ez badago ebazpen adierazirik, eskaera ezetsizat joko da.
5. Herri-onuraren aitortpenaren adierazpena eta ezeztapena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.



Artículo 46. Protectorado de Asociaciones de Utilidad Pública

1. El Protectorado de Asociaciones de Utilidad Pública desempeñará funciones de asesoramiento, apoyo técnico y seguimiento de estas entidades.
2. Al protectorado le corresponderán las siguientes funciones:
 - a) Asesorar e informar a las asociaciones inscritas acerca de los requisitos y procedimiento para el reconocimiento de utilidad pública, así como de sus consecuencias de todo tipo.
 - b) Velar por el efectivo mantenimiento de los requisitos que fundamentaron el reconocimiento de utilidad pública.
 - c) Dar publicidad de la existencia, fines y actividades de estas asociaciones al objeto de lograr su conocimiento por parte de la sociedad y posibles interesados.
 - d) Examinar y realizar un seguimiento de la documentación presentada por estas asociaciones en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.
 - e) Impulsar ante las administraciones públicas competentes las modificaciones que se considere oportuno realizar en la normativa sustantiva y tributaria aplicables a las asociaciones de utilidad pública.
3. El protectorado será ejercido por la Administración general del País Vasco a través del departamento competente en materia de justicia. Dicho departamento podrá recabar la colaboración y asistencia de aquellos departamentos con competencias en el ámbito sectorial en el que desarrollen sus actividades estas asociaciones.

**CAPÍTULO XIII
UNIONES DE ASOCIACIONES**

Artículo 47. Uniones de asociaciones

1. Para la mejor consecución de sus fines las asociaciones pueden constituir federaciones con base territorial o sectorial. Las federaciones pueden agruparse en confederaciones con los mismos criterios. Asimismo, las asociaciones pueden unirse o asociarse libremente entre ellas o con cualesquiera otras entidades.
2. Las referencias contenidas en esta ley a las asociaciones, tanto para su constitución y funcionamiento como para cualquier otro extremo, se aplicarán también a las federaciones, confede-

46. artikulua. Herri Onurako Elkarten Babesletza

1. Herri Onurako Elkarten Babesletzak aholkua eta laguntza teknikoa emango die elkarteei, eta elkarteon jarraipena egingo du.
2. Honakoak dira babesletzaren eginkizunak:
 - a) Inskribatuta dauden elkarteei aholkulartza eta informazioa ematea herri-onuraren aitorpena lortzeko beharrezkoak diren betekizunei eta prozedurari buruz, bai eta aitorpen horrek dituen ondorio guztiei buruz ere.
 - b) Herri-onura aitortzeko oinarri izan ziren betekizun guztiak benetan mantentzen direla zaintzea.
 - c) Elkarte horien izatearen, xedeen eta jardueren berri jendartean zabaltzea, gizar-teak eta interesdunek ezagut ditzaten.
 - d) Elkarte horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean aurkeztu dituzten agiriak aztertzea eta agirion jarraipena egitea.
 - e) Herri-onurako elkarteei aplikagarri zaizkien funtsezko araudirako eta zerga-araudirako aldaketak bultzatzea herri-administrazio eskudunen aurrean, aldaketa horiek egitea komeni dela uste denean.
3. Babesletza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak gauzatuko du, justizia arloan eskuduna den sailaren bitartez. Sail horrek lan-kidetza eta laguntza eskatu ahal izango die elkarteek diharduten sektorean eskumenak dituzten sailei.

**XIII. KAPITULUA
ELKARTEN BATASUNAK**

47. artikulua. Elkarten batasunak

1. Elkarteek, beren xedeak hobeto lortzearren, federazioak era ditzakete, lurraldea edo sektorea oinarri hartuta. Federazioek, irizpide berberen arabera, konfederazioak era ditzakete elkarrekin batuz. Orobat, elkarteak libre dira beren artean edo beste edozein erakunderekin batzeko edo elkartzeko.
2. Lege honetan elkarteei buruz jasotzen diren aipamenak, bai elkarten eraketa eta funtzionamenduari buruzkoak, bai eta beste edozein aldiri buruzkoak ere, berdin ezarriko zaizkie fede-



raciones y demás modalidades de uniones.

razioei, konfederazioei eta elkarteek era ditzaketen bestelako batasunei.

CAPÍTULO XIV CONSEJOS SECTORIALES DE ASOCIACIONES

Artículo 48. Consejos sectoriales de asociaciones

1. A fin de asegurar la colaboración entre las administraciones públicas y las asociaciones, como cauce de participación ciudadana en los asuntos públicos, se podrán constituir consejos sectoriales de asociaciones, como órganos de consulta, información y asesoramiento en ámbitos concretos de actuación.
2. Los consejos sectoriales de asociaciones estarán integrados por representantes de las administraciones públicas y de las asociaciones, y podrán contar con miembros cualificados según la materia.
3. Reglamentariamente, y para cada sector concreto, se determinará su creación, composición, competencias, régimen de funcionamiento y adscripción definitiva.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Responsabilidad por recaudaciones

Los promotores de cuestionamientos y suscripciones públicas, actos benéficos y otras iniciativas análogas de carácter temporal, destinadas a recaudar fondos para cualquier finalidad lícita y determinada, responderán personal y solidariamente de la administración y destino de las cantidades recaudadas frente a las personas que hayan contribuido a la obtención de dichos fondos.

Segunda. Medidas de fomento

Las administraciones públicas vascas fomentarán la creación y la utilización de mecanismos extrajudiciales para la resolución de los conflictos que se planteen en el ámbito de la actuación de las asociaciones.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. Adaptación de estatutos

Las asociaciones constituidas antes de la entrada en vigor de la presente ley que se rijan por estatutos que contengan cláusulas contrarias a ella deberán modificar sus estatutos, para adaptarlos a la nueva norma, en el plazo de un año.

Segunda. Abono de subvenciones y ayudas

El Gobierno Vasco deberá proceder al abono de las subvenciones y ayudas a que tengan derecho las asociaciones para el desarrollo de sus actividades

XIV. KAPITULUA ELKARTEEN KONTSEILU SEKTORIALAK

48. artikulua. Elkarteen kontseilu sektorialak

1. Herritarrei herri-arazoetan parte hartzeko bidea emango dien herri-administrazioen eta elkarteen arteko lankidetzak bermatzeko, elkarteen kontseilu sektorialak eratu ahal izango dira, jardute-eremu jakinetan kontsulta-, informazio- eta aholku-organo izan daitezten.
2. Elkarteen kontseilu sektorialak herri-administrazioen eta elkarteen ordezkariak osatuko dituzte, eta gaian aditu direnak ere har ditzakete barnean.
3. Kontseilu hauen sortzea, osaera, eskumenak, jarduera-arabidea eta behin betiko atxikitzea erregelamendu bidez eta sektore bakoitzerako erabakiko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Diru-bilketen erantzukizuna

Legezko helburu jakin baterako dirua biltzeko xedarekin eske eta harpidetza publikoak, ongintzako ekitaldiak edo aldi baterako antzeko ekimenak sustatzen dituztenek erantzukizun pertsonal eta solidarioa izango dute, bildu dituzten kopuruen administrazioa eta erabilera direla-eta, diru hori lortzen lagundu duten pertsonen aurrean.

Bigarrena. Sustapen-neurriak

Euskal herri-administrazioek elkarteen jardute-eremuan planteatzen diren gatazkak ebazteko jardunbide estrajudizialak sortu eta erabiltzea bultzatuko dute.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Estatutuak egokitzea

Lege hau indarrean sartu aurretik eratu ziren elkarteek, lege honen kontrako klausularik badute beren estatutuetan, aldatu egin beharko dituzte estatutuak, urtebeteko epean, lege berrira egokitzeko.

Bigarrena. Diruzko eta bestelako laguntzak ordaintzea

Eusko Jaurlaritzak sei hilabeteko epean ordaindu beharko ditu elkartei beren jardueretarako dagozkien diruzko eta bestelako laguntzak, eta epea



en el plazo de seis meses desde que se publiquen las bases de la respectiva convocatoria.

DISPOSICIONES DEROGATORIAS

Primera

Queda derogada la Ley 3/1988, de 12 de febrero, de Asociaciones, y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a la presente ley.

Segunda

Quedan derogadas las tasas por las actuaciones del Registro General de Asociaciones del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINALES

Primera. Desarrollo reglamentario

Se autoriza al Gobierno Vasco para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

Segunda. Modificación de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco

Se añade una disposición adicional cuarta a la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, con el siguiente texto:

"Cuarta. Fundaciones constituidas por personas jurídicas públicas

1. Finalidad

Las personas jurídicas públicas podrán constituir o participar en la constitución de fundaciones exclusivamente para promover la participación de los particulares o de otras entidades públicas o privadas en actividades de interés general y siempre que ello no suponga la asunción por parte de las fundaciones del ejercicio de potestades públicas o de la prestación de servicios públicos obligatorios.

2. Creación y extinción

a) La constitución de fundaciones por parte de las personas jurídicas públicas deberá ser autorizada por el órgano de gobierno que resulte competente, con carácter previo a la adopción del correspondiente acuerdo, previos informes favorables de los órganos competentes en materia de hacienda y régimen jurídico de cada institución.

b) En el expediente administrativo relativo a la constitución o a la participación en una fundación por parte de una persona jurídica pública deberá incluirse una memoria en la que, entre otros aspectos, se justifiquen de manera sufi-

laguntza horietarako deialdien oinarriak argitaratzen direnetik hasiko da kontatzen.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa

Indargabetuta geratzen da Bazkunei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legea, bai eta lege honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo behe-ragoko xedapen guztiak ere.

Bigarrena

Indargabetuta geratzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorren jarduketengatik tasak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Erregelamendu bidez garatzea

Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio lege hau garatu eta ezartzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Euskal Autonomia Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen aldaketa

Laugarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Euskal Autonomia Elkarteko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeari, honela idatzita:

"Laugarrena. Pertsona juridiko publikoek eratu-tako fundazioak

1. Helburua

Pertsona juridiko publikoek fundazioak eratu edo fundazioen eraketan parte hartu ahal izango dute, baldin eta partikularrek edo beste erakunde publiko zein pribatu batzuek interes orokorreko jardueretan parte har dezaten bultzatzeko soilik badira eta baldin eta horrek ez badakar fundazioek bere gain hartzea ahalmen publikoen erabilera edo nahitaezko zerbitzu publikoen eskaintza.

2. Sortzea eta iraungitzea

a) Pertsona juridiko publikoek fundazioak eratzeko, baimena eman beharko du gobernu-organo eskudunak, kasuan kasuko erabakia hartu baino lehen, eta erakunde bakoitzean ogasunaren eta araubide juridikoaren arloan eskudunak diren organoek aldeko txostenak egin eta gero.

b) Pertsona juridiko publiko batek fundazio bat eratzeari edo fundazioan parte hartzeari buruzko espediente administratiboan, memoria bat sartu beharko da, besteak beste behar adina justifikatzeko zer dela-eta uste den hobeto lor-



ciente las razones o motivos por los que se considera que se alcanzará una mejor consecución de los fines de interés general a través de una fundación que mediante otras formas jurídicas, públicas o privadas, contempladas en la normativa vigente.

c) También deberá obrar en el citado expediente una memoria económica que se pronunciará sobre la suficiencia de la dotación inicialmente prevista, así como sobre los compromisos presupuestarios futuros necesarios para garantizar su continuidad. Asimismo, se acompañará de un borrador de estatutos previamente informado por el Protectorado y el Registro de Fundaciones del País Vasco.

3. Régimen legal

